



1005/2022 EBAZPENA, AZAROAREN 25EKOA, OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIARENA, ZEINAREN BIDEZ ALDATZEN DEN 877/2022 EBAZPENA, URRIAREN 28KOA, OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIARENA, ETA ZUZENTZEN DEN OSAKIDETZAKO ZUZENDARITZA NAGUSIAN LETRADU KORPORATIBOEN LANPOSTU BATZUK BETETZEKO PROZESUAN EGINIKO PROBA PRAKTIKOAREN BEHIN-BEHINEKO EMAITZETAN DETEKTATUTAKO AKATSA, ETA, HORREKIN BATERA, IZANGAIEN BEHIN BETIKO ZERRENDA.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariaren 877/2022 Ebazpenaren bidez (2022ko azaroaren 3an argitaratu zen Osakidetza webgunean), Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko webgunean argitaratzeko agindu zen Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusian Letradu Korporatiboen lanpostu batzuk betetzeko hautaketa-prozesuaren barruan egindako proba praktikoaren behin-behineko emaitzak, hizkuntza-eskakizunari dagokion puntuazioarekin eta izangaien behin betiko zerrendarekin batera.

Aztertu dira emaitzak eta egiaztatu da, akats baten ondorioz, ez zela sartu Yaiza Inchausti Brandariz andreaki 2. hizkuntza-eskakizuna edukitzeagatik dagokion puntuazioa. Beraz, puntuazio hori sartu ondoren, hauek dira emaitzak:

| NAN | Lehen abizena | Bigarren abizena | Izena | HE | HEaren puntuazioa | Puntuazioa | Puntuazioa, guztira |
|--|------------------|------------------|--------------|----|-------------------|------------|---------------------|
| 2. LEHENTASUNA. ZERBITZU-EGINKIZUNAK | | | | | | | |
| ***9526** | Ruiz de Loizaga | Calvo | Eduardo | 0 | 0 | 5,9844 | 5,9844 |
| 5. LEHENTASUNA. 2016-2017KO EPE-A GAINDITU EZ ZUTEN PERTSONAK | | | | | | | |
| ***1644** | Bustillo | Hernandez | Idurre | 3 | 24 | 7,5625 | 31,5625 |
| ***7751** | Tobillas | Amestoy | Nagore | 3 | 24 | 6,3437 | 30,3437 |
| ***8319** | Lapatza-Gortazar | Bengoa | Patxi Jagoba | 4 | 24 | 5,2187 | 29,2187 |
| ***4891** | Larrauri | Aranguren | Pablo | 3 | 24 | 5,1937 | 29,1937 |
| ***2423** | Inchausti | Brandariz | Yaiza | 2 | 16 | 5,9137 | 21,9137 |
| ***9723** | Campos | Arteche | Miguel Angel | 2 | 16 | 5,3075 | 21,3075 |
| ***0981** | Hernandez | Ercilla | Irene | 2 | 16 | 5,0337 | 21,0337 |
| ***7842** | Santa Cruz | Santos | Zuriñe | 0 | 0 | 6,9125 | 6,9125 |
| ***3626** | Mariñelarena | Garciandia | Jose Manuel | 0 | 0 | 6,4025 | 6,4025 |
| ***2913** | Masot | Monserrat | Montserrat | 0 | 0 | 5,1031 | 5,1031 |




Horregatik guztiagatik, honako hau


EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko webgunean argitaratzeko agintzea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusian Letradu Korporatiboen lanpostu batzuk betetzeko hautaketa-prozesuaren barruan egindako proba praktikoaren behin-behineko emaitzak, hizkuntza-eskakizunari dagokion puntuazioarekin –antzemandako akatsa zuzendu ondoren– eta izangaien behin betiko zerrendarekin batera.

Bigarrena.– *Letradu Korporatiboen lanpostu funtzional batzuk aldi baterako betetzeari buruzko Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiaren 4/2021 Instrukzioan ezarritakoaren arabera*, ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetzako Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, Ebazpena Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren webgunean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko azaroaren 25a



 **Osakidetza**
Luisa Larrauri Ereñozaga
GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIA
DIRECTORA DE RECURSOS HUMANOS

Sin.: Luisa Larrauri Ereñozaga
DIRECTORA DE RECURSOS HUMANOS DE OSAKIDETZA